

Inauteriak herriko kaleak alaitu zituen

Larunbata arratsaldean, 350 bat herritar bildu ziren konpartsen desfilean

Ostegun gizenean, Musika Eskolako kontzertu bufoak eman zien hasiera Lasarte-Orian Inauteriei.

Ostiralean, etxeko txikien txanda izan zen ikastola desberdinetan. Sasoeta-Zumaburura zirkoa iritsi zen; Landaberrin, berriz, lau kontinenteetako biztanleak eta Euskal Inauterietako pertsonaiak izan ziren protagonistak.

Ijitoak ikusi ahal izan genituen Okendo plazan barbakoa eta guzti, larunbata eguerdian.

Eta arratsaldean, konpartsen desfilea izan genuen. 350 per-

sonatik gora batu ziren Lasarte-Oriako kaleetarik zehar dantza eta emanaldi desberdinak burutuaz.


Gauean ere giro ezin hobea egon zen taberna eta kaleetan, baita Okendo plazako disko-festan ere.

Urtero legez, Euskal Inauterien konpartsak bere jantzi koloretsu eta doinu alaiekin igande eguerdi eta arratsaldean kaleak girotu zituen eta Hartzta erretzean bukaera eman zion gure herrian mozorro festari.

Hau guztia, zenbaki honetako zentraletan ikusi dezakezue. •



Goiko argazkia Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko jaialdikoa; behekoa eta ezkerrekoa berriz, Landaberrri ikastolakoa.



Kirol kartel zaharrak
Gipuzkoako Kirol Departamenduko webgunean /2

ALBISTEAK ■ 3
Udal euskara zerbitzuen topaketa burutuko da maiatzean Lasarte-Orian



Foru Aldundiak diru-laguntza kendu die Kultur errota zirkuitu eta Topaguneari /6

GURUTZETA SAGARDOTEGIA

Zatoz txotx egitera!

SAGARDOA ZER DEN BALDIN BADA KIZU,
EDERKI ANTZEMANGO DIOZU GUREARI

TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA, SAGARDO NATURALEAN

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxa: 943 552292 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com



Hipodromoa aparkaleku zenekoa

■ Gipuzkoako Kirol Departamenduak ehunka kartel historiko jarri ditu erakusgai Interneten ■ Kartel zaharrena 1923ko Lasarteko Automobilismo Astearena da

Aizkolaritza, txirindularitza, tenisa... Kirolak tarte handia du Gipuzkoako azken mendeko historian, www.kirolzerbitzua.net/argitalpenak/index.html webguneko 460 kartelek erakusten duten bezala.

Lasartek ere badu tarterik bertan, eta ez Nazioarteko Krosarengatik soilik. 1920 eta 30eko hamarkadetan izan zen auto zirkuitua dela eta, bertan egin zituzten lasterketak iragartzen dituz-

ten hormurdiak ere badaude ikusgai. Luis Murgia Automobil Elkarteko arduradunak ederki daki kartel horiek irudikatu zituzten mundu mailako proba horien berri.

Amaia PORTUGAL

Lasarte-Oria Gipuzkoako kirol ekitaldi askoren agertoki izan da. Horren lekuko, Foru Aldundiaren Kirol Departamenduak www.kirolzerbitzua.net/argitalpenak/index.html webgunean erakusgai jarri duen altxorra. 1920ko hamarkadatik gaur egunera arteko 460 kartel daude ikusgai bertan, askotariko partida, lasterketa, txapelketa eta beste hainbaten berri emanez. Lasarteko Krosari edo hipikari lotutako kartel batzuk badaude. Baina hipodromoa eta Lasarte ez dira lasterketa eta zaldi probengatik bakarrik agertzen karteletan.

Bilduma bitxi honetako alerik zaharrena 1923koa da. Uztailaren 21etik 26ra egin zuten lehen Automobilismo Aste Handia iragartzeko erabili zuten. Eta hara non, kirol ekitaldi hark Lasarte zuen protagonista, zirkuitua Txartel hotelaren paretik abiatu eta herria erdi-erditik zeharkatzen baitzuten azken txanpan. Hipodromoa, berriz, aparkaleku gisa erabiltzen zuten, eta 1.200 auto hartzen zituen egun horietan. Lasterketa hura hamaika aldiz egin zuten 1923a eta 35a bitartean, eta Foru Aldundiak urte guztiarako kartelak berreskuratu ditu Automobil Elkarteari esker.

Izan ere, Luis Murgia Automobil Elkarteko arduraduna jarri zen Aldundiarekin harremanetan, haien webguneko bilduman aurreneko lasterketa hartako kartela bezain zaharrik ez zutela ohartuta, eta zituen guztiak eman zizkien. Batzuk besteak baino egoera hobean daude, eta nabaria da diseinugintzan hamarkada baten buruan izan zen aurrerapena. Autoetan oinarrituta daude karteletako batzuk, inguruko paisaietan besteak. Koloreei dagokienez ere, batzuk besteak baino ikusgarriagoak. Baina guztiak gertaera historiko eta nahiko ahaztu baten lekuko.

Egunpasa egiteko aitzakia paregabea

Historikoa, garai hartan gaur egungo Formula 1a bezain garrantzitsua baitzen lasterketa



1923an Automobil Aste Handia iragarri zuen kartela eta hurrengo urteetan erabilitako beste hainbat.

hori. Orain bezala zirkuitu bati behin eta berriz bueltak aritu beharrean, ordea, parte-hartzaileak Lasarte eta inguruetakogune ugaritik igarotzen ziren,

17 kilometroko bidea osatuz. Txartel hoteletik abiatu, eta Bazkardo, Urnieta, Hernani eta Loretoitik pasatzen ziren, harik eta Lasarte alderik alde

zeharkatuta helmugara iristen ziren arte. Murgiak azaldu duenez, inguruetako zaharrenek ondo gogoratzen dute ibilbide hura: "Jendea Andoain edo

Loretokira joaten zen oinez, egunpasa. Erromeriara joaten ziren bezala etortzen ziren lasterketa ikustera".

Ziurrenik, 1926an inguratu zen zale gehien Lasarte eta inguruetako zirkuitura: urte hartan, ohiko lasterketa ez ezik Europako Txapelketa egin zuten aldi berean bertan. Hain zuzen ere, Chenard Walker marka frantseseko kideek irabazi zuten hura, eta ez zuten berehalakoan ahaztu. "Orain dela hiru urte hona etorri ziren, 80 urte bete zirelako irabazi zutenetik", dio Murgiak. Gertaera hura ospatzeko, lasterketaren irteera birgogoratu zuten Txartel hotelaren aurrean.

Etenaldiak eta behin betiko agurra

Lasterketak etenaldia izan zuten 1931ean eta 32an, II. Errepublikaren aurreneko bi urteetan, alegia. Gero berreskuratu egin zuten, harik eta 36ko Gerra lehertu zen arte.

Murgiaren arabera, Frankismoa zehar izan zen hura berreskuratzeko saiakerarik, 40ko hamarkadaren hasieran: "Hemen saihesbide bat egiteko proiektu bat zegoen (ordurako ezinezkoa zen zirkuituak Lasarte zeharkatzea), eta hormigoizko harmailak ere bai. Irteera, berriz, Villa Mirentxu dagoen tokian edo egingo zuten". Aldundiak prest omen zuten lan horiek egiteko aurrekontua, baina 1945ean Donostian izan zen itsas ekaitz batek hankaz gora bota zituen asmo guztiak. "Kursaal aurrean txiki-zin handia izan zen. Dirua hori konpontzeko erabili zuten, eta ez zuten zirkuitua egin".

1935ean betiko eten zen, beraz, Lasarte-Oriako auto lasterketen historia. Hala ere, Bugatti auto markak, esaterako, gaur egun arte iraun duen arrastoa utzi zuen Zubieta aldean, hango Villa Bugatik eta ondorengo fruten merkaturak erakusten duten bezala. Hemendik aurrera Gipuzkoako Kirol Zerbitzuen webgunean ikusgai dauden hamaika kartel horiek ere badira lasterketak utzitako arrastoaren erakusle.

Krosa eta beste zenbait bitxikeria

Lasarte-Oria jokaleku duten beste hamarnaka kartel daude ikusgai aipaturiko webgunean; atletismoari lotutakoak, gehienak. Horietan zaharrena 1943koa da eta Espainiako Kros Txapelketari dagokio; Frankismoaren ikurrek *apainduta* ageri da. Badira 1963an eta 71an Europako Txapelketak hipodromoan egin zituztela gogorarazten duten bi kartel ere. Baina gehientsuenak, noski, Lasarteko Nazioarteko Krosari buruzkoak dira; tamalez, euskaraz idatzitako

aurreneko kartela aurkitzeko 1985eko Krosera jo beharra dago.

Errugbiak ere badu tokirik kartelotan. Euskalerriko Rugby Eskola Independiente izeneko talde batek hainbat ekimen egin zituen 80ko hamarkadan, kirol hau sustatzeko. Esaterako, txapelketa antolatu zuten hipodromoan, 1987ko San Pedro jaietan.

Inork Lasarteko kirol kartel gehiago izanez gero Donostiako Kirol Etxera hots egin besterik ez du: 943 45 83 57. •



Udaltop, udal euskara zerbitzuen topaketa maiatzean Kultur-etxean

■ Familia transmisioa da Udalak antolatutako lehen topaketa hauen gai nagusia ■ Helburua Udal Euskara Zerbitzuen lana hobetzea da

TXINTXARRI

Udal Euskara Zerbitzuen I Topaketa burutuko da Manuel Lekuona Kultur Etxean maiatzaren 7 eta 8an.

Familiatan euskararen erabilera indartzeko bideak izango dira gai nagusia, eta udaletan euskararen alorrean ari direnen jarduna hobetzea dute helburu Udaltop jardunaldi hauek. Horretarako herri bakoitzeko esperientziak elkartrukatu eta bide berriak irekitzeko aukerak aztertuko dituzte.

Lasarte-Oriako Udalak antolatuko du Euskal Herriko osoko euskara teknikari eta euskararen normalkuntzan ari direnentzat eta izena emateko epea martxoaren hasieratik aurrera izango da zabalik www.udaltop.com webgunean.

Euskal Herriko udaletxeetan euskara zerbitzuetan lanean dihardutenak Lasarte-Orian elkartuko dira maiatzaren 7 eta 8an burutuko diren Udaltop Topaketan. Lasarte-Oriako euskara zerbitzuaren ekimenez antolatuko da Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuarekin batera. Eusko Jaurlaritzaren eta Eudel ere laguntzaile dira eta erakunde guzti hauetako ordezkariak aurkeztu zuten aurreko astelehenean Donostian: Maria Jesus Aranburu Kultura dipu-



Ricardo Ortegak zuzentzen duen Euskara Batzordearen ekimenez antolatu da euskara teknikarien topaketa.

tatuak, Lasarte-Oriako zinegotzi Ricardo Ortegak, Patxi Baztarrika Hizkuntza politikarako sailburuordeak eta Eudelen baitan Euskara Planen ardura duen Jokin Azkuek.

Denetariako errealitateak

Antolatzaileen ustez, udal bakoitzeko euskara zerbitzuen errealitatea eta ibilbidea argi dago desberdina dela eta beraz interesgarri jotzen dute elkarrengandik ikastea, hau da, euskara-zerbitzuen esperientziak truketzea, esperientzia horiek nola hobetu

hausnartzea eta esperientzia berriak elkarlanean abiatzea. "Bigarren helburua da, egiten ari garenaz hausnartzea, nahiz eta horretarako lehendabizikoa ere bidelagun izan, esperientziak elkartrukatzea alegia. Hirugarrena, berriz, elkarlanarena, beste aldagai askoren ondorio izango da, izatekotan".

Izen-ematea

Aurten lehen topaketa egin eta Udal Euskara zerbitzuak jardunaldiak urtero burutzeko asmoa du.

www.udaltop.com web orrialdean eskainiko da informazio zabalagoa. Bertan da egitaraua, laister jarriko dira eztabaidatuko diren gai buruzko txostenak. Matrikula ere web orrialdearen bidez egingo da, martxoaren hasieratik aurrera, eta gehienez 120 lagunentzako tokia dagoela jakin arazi nahi dute.

Nagusiki, euskara teknikariei zuzenduta dago Udaltop topaketa baina euskararen normalkuntzaren alorrean dihardutenek parte hartzeko aukera zabalik izango dute. •

FEEN SARIA

Garuna osasuntsu nola mantendu

Otsailaren 11ean Gaixotasun Neurologikoen Espainiako Fundazioak FEEN sariak banatu zituen Madril. Sari-tuetako bat Martin Berasategi sukaldaria dugu.

Berasategi garunarentzako elikadura osasuntsuaren alde egindako lanarengatik jaso du fundazioak Hezkuntza eta Dibulgazio sailean ematen duen saria. Hain zuzen ere, *No te comas el coco* liburuan egindako lana saritu dute.

Donostiako Quiron klinikako Gurutz Linazasoro neurologoarekin batera egin zuen lanean gaixotasun neurologikoen ondorio anitzak arintzeko elikagaik eta sukaldeko ohiturak jartzen ditu erien eskura. Eta, era berean, garunaren osasuna hobetzeko oinarriko elikagaiekin, hala nola, barazkiak, frutak edo arraina, osatutako 55 errezeta erakuste ditu liburuan. •

IKASTAROA

Helduentzako igeriketa

Martxoaren 9tik apirilaren 29ra, helduentzako igeriketa ikastaroa eskainiko dute udal kiroldegian. Astean hiru saio izango dira (astelehenean, asteazkenean eta ostiralean), 19:10etatik 20:30etara. Izena emateko azken eguna martxoaren 6a da. Ikastaroak 100,40 euro balio ditu eta kiroldegiko bazkide direnentzat 55,80 euro. Informazio gehiago nahi izanez gero kiroldegiko bulegora hurbildu behar duzue edo 943-376182 telefonora deituaz eska dezakezue. •



Gaztetxoek lehiaketa

Nahiz eta Inauteriak izan, Lasarte-Oriako kirolariek jardunaldi izan zuten asteburu honetan. Horietako batzuk ditugu larunbatean Udal Kirol guneko atletismo pistan eskolarteko proba libreetan lehiatu ziren gaztetxoak. 60 metro hesiekin, altuera edo pertikan alebin eta infantil mailako atletak etorkizuna dagoela erakutsi zuten. •

Jazza eta bossa nova ederra

Gazteria eta festak sailak eta Xpression kultur elkarteak Manuel Lekuona kultur etxean kafetegian antolatzen dituzten kontzertuetan, rocka, reggaea edo popa entzuteko aukera izan dute lasarteoriatarrek. Aste honetako emanaldian, jazza eta bossa nova izan ziren nagusi Anna Valentina trioren eskutik.

Ordu beteko saioan musika joera hauetako doinuak eskaini zituen hirukoteak era minimalista batean, ahotsa, gitarra eta baxua.

Kafetegian bildu zen herri-tar taldeak ederki gozatu zuen abestiaren erritmo lasai eta doinu ederrekin. •





San Ferminen parodia Musika eskolako kontzertuan



Jaunartzea egin zuen neska taldea



Jalguneko pailazo artistek ederki abestu zuten



Jitoak, ahuntzak, tonbola eta igarleak ere egon ziren



Musika eskolako orkestrak girotu zuen desfilea



Kuadrilategiko malabaristak ere ikusi genituen



Zabaletako klownek zirko mundiala alaitu eta Epoitaitaie abestiarekin guztiok dantzan jarri gintuzten



Loreak dantzan ikusi genituen Emakumeen zentro zibikoari esker



Haur indartsuek 200 kilo jaso zituzten



Zaldi eroen emanaldi zoragarria ikusi genuen



Gizon balak hegan egin zuen Okendon

Inauteri giro ezin hobe Lasarte-Orian



Hawaiitik ere etorri zen jendea desfilean parte hartzera



Euskal Inauteriak konpartsak igandean kolorez bete zituen Lasarte-Oriako kaleak



Zakiltzatxoak Okendon ikusi genituen eguerdian eta arratsaldean astotxoak saldu nahian zebiltzan



Dantzari eta gimnastek ere parte hartu zuten zirkoan



Gazte klubeko neska mutilek magia egin zuten



Hankaluzeek aho zabalik utzi zituzten haurrak

Foru Aldundiak diru-laguntza kendu die Kultur Errota zirkuitua eta Topaguneari

■ Hamaika urtetan formato txikiko 1.700 emanalditik gora egin dira ■ Laguntzarik ez izateak eragina izango badu ere, Jalgin hilero eskaintzen duen egitarauari eutsiko dio Ttakun elkarteak

Topagunea Euskara Elkarten Federazioak astelehenean salatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak aurten ez duela Kultur Errota zirkuiturako diru laguntzarik emango, ezta Topagunearen sustapen lanetarako ere. Guztira iaz ia 50.000 euro jaso zituen Topaguneari bi zeregin horietarako, batetik Federaziotik burutzen diren prestakuntza, aholkularitza, zerbitzu eskaintza eta beste lan ildoen garapenerako eta bestetik formato txikiko kultur ikuskizunen antolaketarako.

TXINTXARRI

Ttakuneko ordezkariak Doka Kafe Antzokian eman zen prentsaurrekoan izan ziren eta bat egin dute Topagunearen salaketarekin. Ttakunek eta Topagunearen dauden Euskal Herriko beste 87 Euskara Elkarteek adierazi dutenez, Kultur Errota zirkuituko eskaintzari eutsi egingo diote, beste foru aldundien, Jaurlaritzaren, BBK zein Kutxaren babesari esker. Dena den, antolatua ahal izango diren ekitaldi kopurua murriztu egingo da eta Topagunearen Gipuzkoako sustapen plana berregokitu.

Erabaki politikoa

Prentsaurrekoan Topagunearen kezka eta ezinegona jakinarazi zuten Euskara Elkarten Federaziotik ordezkariak eta erabaki politikoa izan dela jakinarazi.

Topaguneko zuzendari Jasone Mendizabal, Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteko Maite Agirre, Eibarko ...eta kitto! elkarteko Koldo Mitxelena eta duela hamaika urte sortutako Kultur Errota ekimean hasieratik parte hartu izan duen Andoni Tolosa *Morau* kantariak parte hartu zuten agerraldian.

Jasone Mendizabalek adierazi zuen ez dela krisialdi ekonomikoaren ondorio izan: "erabaki politikoa kontzientea

da, euskara elkarten kalterako." Topagunearen ustez, Foru Aldundiak jokabidez aldatu eta beste hizkuntza politikakultur eredu bultzatuko ditu.

Foru Aldundiak lankidetzaz hitzarmena eteteko erabakiak, Topagunearen iritziak, kolokan eta zalantza jartzen ditu Kultur Errotaren eredu parte hartzailea batetik eta gizarte ekimenetik sortutako euskara elkarten garapena bestetik. Euskara elkarteetako ordezkariak azpimarratu zuten oso garrantzitsuak dira elkarteontzat, Federaziotik burutzen diren prestakuntza, aholkularitza, bozeramaletza, zerbitzu eskaintza eta etorkizunerakolan ildoen gogoeta lanak eta, era berean, Topagunearen funtzioa zalantzan jartzeak euskara elkarten beraien zeregina ere zalantzan jartzea dakarrela azaldu zuten.

Kultur Errota

Kultur Errotari dagokionez, hamaika ediziotan ehunka sortzailek mila eta zazpiehun emanalditik gora eskaini dizkiete Euskal Herri osoko milaka ikus-entzuleri. Ikuskizun guzti hauek ohiko zirkuituetatik kanpo geratzen diren herri zein agertokietan eskaintzen dira. Kultur Errota euskarazko kultur sorkuntza herritarrei hurbiltzeko bokazioz sortu zen eta formatu txikiko kultur eskaintzaren erreferente ukaezina bihurtu da hainbat herritan.



Andoni Tolosa *Morau* kantaria eta Euskara Elkarteetako ordezkariak Topagunearen agerraldian.

Topaguneari 1997tik hainbat esparru lantzen ditu: haur eta gazteen aisialdia, kulturgintza, tokiko hedabideak,...

Euskara elkarteetako ordezkariak Kultur Errotak bultzatzen duen kultur eredu parte hartzailea ere nabarmendu zuten, gizarte ekimenetik sortutako egitasmoa dela gogoratuz. "Herritarrek kultur kontsumitzaile hutsak baino, kultur eragile bihurtzea da euskara elkarten apustua eta Kultur Errota, apustu horretan, funtsezko tresna da."

Zirkuituak herritarrek kultur gileekin harreman zuzenean jartzeaz gain, euskarazko kultur eskaintza urria zegoen toki batzuetan sarri ekitaldiak edo egitarau finko bat egotea ahalbidertatu du. Era berean, kultur sortzaile

leentzat (ibilbide luzea duteleentzat zein hasi berriak direntzat) horrelako zirkuituak izateak duen garrantziaren gainean aritu zen Andoni Tolosa *Morau* kantaria.

Laguntza ekonomikoa finantzen zuten lankidetzaz hitzarmen hori Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentua eta Topagunea artekoa zen.

Atxekimenduak

Topaguneari batetik, Gipuzkoako Batzar Nagusietan ordezkari gisa dauden alderdiekin biltzeko asmoa du. Bestalde, babes adierazpenak jasotzeko ekimena ere jarri du abian www.topagunea.org gunean.

Topagunea Euskara Elkarten Federazioa 1997an sortu zen, eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 88 Euskara Elkarteak osatzen dute. Elkarteon zein Federazioaren beraren helburua euskararen erabilera sustatzea da.

Zeregin ezberdinak

Horretarako, hainbat esparru lantzen dituzte, hala nola haur eta gazteen aisialdia, kulturgintza, tokiko hedabideak, mintzapraktika, entitateak euskalduntzea eta sentiberatzea.

Topaguneari ez du ulertzen nola Aldundiak erabaki duen ez babestea euskararen erabilera bultzatuz euskaldun komunitate trinko eta zabal bat antolatzeko xedearekin lanean diharduten Euskara Elkarten lana. Ikuspegi eta helburu hori dute Topaguneko 88 bazkideen ekimen guztiek. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun.com

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Egunero

Erakusketa

ZILO, herriko artistaren "The Artificial Smile Company" margo erakusketa. Jalgi kafeantzokian, egun osoan zehar



Ostirala, 27

Kontzertua

JOSE LUNA ETA ARENA FINAREN kontzertua Andaluziako eguneko ospakizunen barruan. Sarrera: 4 euro. Manuel Lekuona Kulturetxean, 19:30ean



Vidas Minadas erakusketa

Gerrateei buruzko hainbat liburu idatzi dituen Gervasio Sanchezen Vidas minadas, 10 años despues argazki erakusketan pertsonen kontrako minek sortzen dituzten hondamenak ageri dira gordin gordin. Gorputzeko zatiren bat moztua dutenen tragedia irudikatzen du, Euskal Fondoak dakarren erakusketa ibiltaria honek. Otsailaren 27ra arte ikusi ahal izango da.

EGUNERO

MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN

18:00ETATIK 21:00ETARA

Ostirala, 27

Antzerkia

HONOLULU LEKU BAT lana eskainiko du Gilkitxaro taldeak. Antzezleak: Ane Zabala Gabikagogeaskoa eta Galder Perez. Kultur Errota barne dago ekitaldi hau. Jalgi kafeantzokian, 22:30ean, EUSKARAZ.



Larunbata 28

Andaluziako eguna

Eguerdiko 12:00tan, SEMBLANTE ROCIERO TALDEAK abestuko du Aranzazuko elizan burutuko den mezan.

13:30ean, OHOREZKO ARDOA, Semblante Andaluz Elkartearen Egoitzan.

14:30ean, BAZKARIA Semblante Andaluz Elkartearen Egoitzan.

18:30ean, DUENDE FLAMENCO haurren dantza taldearen emanaldia Semblante Andaluz Elkartearen Egoitzan.

Ondoren, jaiari amaiera emango zaio ANDALUZIAKO ERESERKIA abestuz.

Liburutegiko ordutegia



Asteleheneretik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Bizilagunen Elkarteko marrazketa eta pintura eskolak

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkartek jakinarazi nahi du marrazketa eta pintura ikastaroetan parte hartzeko lekua badagoela oraindik. Interesa dutenek izena emateko, asteazkenetan eta ostiraletan egin behar dute arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara kulturetxeko bigarren solairuan.

Herriko presoaren aldeko elkarretaraztea Udaletxean aurrean

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etxerarek kontzentrazioa egingo du arratsaldeko 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei euskal presoaren alde egingo den ekimenean parte hartu dezaten.

Odol ateratzeak Osasun Zentroan

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroa berrian arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Bultzatzaileek herritarrei deia luzatu diete odola eman dezaten: Anima zaitzete, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

Kataluniako Calçotada martxoaren 7an Buruntz Azpi elkartearen

Buruntz-Azpi elkarteak jakin arazten du martxoaren 7an Katalunian ohiturazkoa den Calçotada egingo duela elkartearen bertan. Menua hasteko calçotak eta ondoren arkume errea izango da. Interesa dutenek elkarteko ohar-taulan eman beharko dute izena. Mahaikide kopurua mugatua izango da.

Bozkaterakoan EHNA erabiltzeko deia

Bai Euskal Herriari taldeak martxoaren 1ean burutuko diren Euskal Legebiltzarreko Hauteskundeetan EHNArekin bozkatzeko eskatzen die Lasarte-Oriako herritarrei.

Tabernarien bilera herriko festaraz hitz egiteko

San Pedro jaiak direla eta, bilera bat antolatu dute eta tabernari guztiak daude gonbidatuta parte hartu dezaten. Bilera otsailaren 26an, osteguna, izango da Geltoki kalean Ttakunen duen bulegoan arratsaldeko 19:30ean.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe



Autobusa AC-DC ikusteko

AC-DC taldeak, martxoak 31 asteartea, Bartzelonan eskainiko duen kontzertura joateko autobusa antolatu da. Oraindik ez dago irteera lekua zehaztua, baina Donostia edo inguruko herri batean izango litzateke. Autobusa goizeko 9:00etan aterako da Bartzelonarantz eta kontzertu ostean, bueltatuko da. Joan-etorria 50 euro dira eta eserleku kopurua mugatua da. Bidaia berri gehiago jakiteko bus_acdc@hotmail.com helbide elektronikora bidali mezua.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekariaz (Geltoki kalea 4).

Ekintza kulturaletaz haratago

Danok Kide gurasoen elkarteak kultura eta gizarte arloan ekintza ugari antolatzen ditu Musika Topaketak, hitzaldiak edo zinema soziala zikloa. Hauetaz eta beste hainbat ekintzetaz Jose Luis Navarro, Endika Amilibia eta Jesus Mari Eguizabal elkarteko kideekin solasaldi ederra izan dugu.

Nerea EIZAGIRRE

“Danok Kide guraso elkarteak 1962an sortu zen, Lasartek zituen arazoak konpontzeko. Urnietan, Hernani eta beste herrien menpean zegoen eta hezkuntza, hirigintza edo arratzen arazoak konpontzeko sortu zen,” hala azaldu digu Jose Luis Navarro Danok Kideko kideak.

Danok Kide elkarteko egoitza lanbide hezkuntzarako erabiltzen zela ere azaldu digu Navarrok.

“Danok Kidek demokrazia iritsi eta Lasarte-Oriak udal propioa osatu arte jarduerak ugari burutu zituen. Horien artean, ikastolak, ambulatorio zaharra eta Correoseko egoitza dira aipagarrienak,” aipatu digu Jose Luisek.

“Ondoren, alderdi politikoak sortu ziren. Elkarteko kideak hauetan sartu eta jarduerak eza izan genuen,” atxiki du Endikak.

“Baina Lasarte-Oriaren kultura eta gizarte arloan ekimen ugari egin genitzakeela otu zitzaigun eta horretan dihardugu,” esan digu Jose Luis Navarrok.

Ekintza kulturalak

Elkartearen ekintza kultural nagusiak hiru dira, Musika Topaketak, Giza-balioen hitzaldien zikloa eta Zinema zikloa.

Musika Topaketetara izen handiko taldeak etorri dira lau urte hauetan, baina azken aldian taldeak lortzeko zailtasunak izan dituztela azaldu digu Jesus Mari, “*Juventudes Musicales* elkartearekin harremanetan jarri behar izan dugu taldeak lortzeko.” Eta martxoan Donostiako Santa Cecilia eta maiatzean Irungo Kabigorri abesbatzak etorriko direla ere aurreratu digu.

Giza-balioen hitzaldiei dagokionez, zikloak 6. jardunaldiak ditu aurten. Giza-balioak familian edo kirolean izan dira aurreko edizioetako gai nagusiak, aurten zorientasuna izango da hitzaldien ardatza.

Maiatzaren 11tik 14ra, Javier Elzo soziologoa, Xabier Andonegi apaiza edo Patxi Izagirre eta Conchi Medrano psikologoek zorientasunari buruz hitz egingo dute, Manuel Lekuona kultur etxean, 19:30ean.

“Pena ematen digu, Lasarte-



Jose Luis Navarro, Endika Amilibia eta Jesus Mari Eguizabal Danok Kideko elkarteko egoitzaren aurrean.

Oriako elkarte eta zentro desberdinek antzeko hitzaldi edo ikastaroak antolatzea,” aitortu digu Jesus Mari Eguizabalek, “ea hurrengo urteetarako denon artean ados jartzen garen.”

Beste ekintzak

Bestalde, elkarteko kideentzako hezkuntza iraunkorra antolatzen dute irailtik maiatzera.

“Ikastaro desberdinak egiten ditugu. Hauetako bakoitzak bederatzirdu orduakoa da eta hiru egunetan banatzen ditugu,”

azaldu digu Navarrok.

Baina honetaz gain, Erregeen kabalgataren kudeaketa, Jaiotzen lehiaketaren antolakuntza eta Lasarte-Oria aldiakariaren argitalpena ere elkartearen zereginak dira.

Bestalde, Danok Kideko egoitza talde desberdinek erabiltzen dutela ere aipatu digute, esate baterako, gimnasia, yoga edo josteta egiten duen emakume taldea, Nazaret zentrotako pilates kurtsua, eliza ebanjelari eta EPAko antzerki taldea. “Aste osoan zehar,

jendez betea dago,” aipatu du hirukoteak.

Etorkizuna

“Hasi ginenean gurasoak ginen, orain aitona amonak gara,” esan digu Endikak, “belaunaldi berri bat sartu beharko litzateke, 30 eta 35 urte bitarteko gurasoak elkarteko kide egitea litzateke idealena. Baina gazte jendea gauza puntaletarako animatzen da soilik. Badakigu elkarte desagerituko dela, ez baitago gure lekukoa hartuko duenik.” •



IV. Musika Topaketako kontzertura hurbildu zirenek, kontzertu didaktikoaz gozatu ahal izan zuten ostirala arratsaldean.

Musikeneko flauta taldeak eskaintako doinu garaiakideak entzuteaz gain, Mario Clavell zuzendariaren azalpenak ere entzun ziren Brigitarren komentuan.

V. Zinema Soziala zikloa Kultur etxeko aretoan

Danok Kide elkarteak Udal Kultur Zerbitzuaren laguntzarekin V. Zinema Soziala zikloa burutuko du astelehenetik martxoak 2an hasi eta 23ra arte Manuel Lekuona Kultur etxeko aretoan, 17:30ean.

Berrikuntza nagusia hitzaldi areto utzi eta auditoriumean egingo dela da. “Arazoak izan ziren SGAEekin eta orain udalaren laguntzaz 35 mm-tako filmak ikusi ahal izango ditugu,” azaldu digute Danok Kideko kideek. Horregatik, oso pozik agertzen dira kultur etxearen eta kultura arloak eman dien laguntzarengatik.

Aldaketa honek bere alde onak eta txarrak dituela ere aitortu digu J. M. Eguizabalek, “hizlaria eta jendearen artean tarte handia dago eta, gainera, jendea sakabanatua

egongo da; bestalde, hitzaldi aretoan baino erosoago egongo gara eta ziklora hurbiltzen direnek filmak ongi ikusi ahalko dituzte.”

“Hala ere, guretzat garrantzitsua elkarte desberdinek bere egitekoa erakustea da, filmak gaia irudiz hornitzeko dira,” esan digu Endikak, “ez da bideoforuma, ez dute filma azalduko, elkartearen egitekoa baizik.”

Beste urteetako jende kopurua biltzea espero dutela ere aitortu digute. “Badakigu ez dugula aretoa beteko, baina saio batetara 100 bat pertona hurbiltzen badira pozik egongo gara,” azaldu du Amilibiak.

Eta, honetaz gain, herritar gutzietatik irekia dagoela gogoratu dute.

Edizio honetako egitaraua aurreratu digute:

Martxoak 2

Gaia: Bakardadea
Filma: Nueve Vidas
Zuzendaria: Rodrigo Garcia
Hizlaria: Gipuzkoako Itxaropen telefonoa

Martxoak 9

G.: Ludopatía
F.: Volveras
Z.: Antonio Chavarrias
H.: Ekintza-Dasaldu

Martxoak 16

G.: Gorputz organoen emaitza
F.: Lo mejor de mi
Z.: Roser Aguilar
H.: Alcer

Martxoak 23

G.: Anorexia
F.: El Diablo se viste de Prada
Z.: David Frankel
H.: Acabe •